



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ESP.	2010IPLE0001
ATALA.	IDAZKARITZA
GAIA	EZOHIKO OSOKO BILKURA

2010-12-10ko EZOHIKO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta hamargarren urteko abenduaren 10ean, arratsaldeko 17:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, Alkatea Ramón Gerrikagoitia Bengoetxea jauna buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Begoña Garmendia Vazquez andrea, Igone Arruti Olazabal andrea, Itziar Arkonada Lizarraga andrea eta Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna.

Udaleko idazkari kontu-hartzaileakak, Lierni Muñoa Salaverriak, egin ditu idazkari-lanak.

AZTERGAIK

1. Gaia: Azken 3 plenoko akten onarpena.
2. Gaia: Ur agentziarekin hitzarmena sinatzeko alkatea baimentzea
3. Gaia: Eskualdeko garraio aurreproiektuari alegazioak berreste
4. Gaia: Plazako obra burutzeko lurra uzteko akta sinatzeko alkatea baimentzea
5. Gaia: Bake epaitegiko idazkari aldaketa
6. Gaia: 1/2010 kreditu gehigarriaren onarpena.
7. Gaia: Plazako obraren lur mugimenduen birkokapena.
8. Gaia: Ohiko gastuen % 10 a gainditzen duten fakturen onarpena.
9. Gaia: Alkatetza dekretuen berri ematea.

Beraz hartu beharreko erabakien azterketari ekiten zaio.

1.- AZKEN 3 PLENOKO AKTEN ONARPENA.

2010/07/26, 2010/09/27 eta 2010/10/25 saioetako akten zirriborroak ikusita, aho batez erabaki du udalbatzak hauek onartzea.

2.-UR AGENTZIAREKIN HITZARMENA SINATZEKO ALKATEA BAIMENTZEA

Osoko bilkurak aho batez erabaki du Alkatea baimentzea, ur agentziarekin hitzarmena sinatzeko, 2009 eta 2010eko Ur kanonaren errekaudazioa dela eta udalak egindako lanak konpentsatzeko.

3.- ESKUALDEKO GARRAIO AURREPROIEKTUARI ALEGAZIOAK BERRESTEA

Begoña Garmendia zinegotziak jakinarazi du 2010eko azaroaren 26an aurkeztu zirela eskualdeko garraio aurreproiektuari alegazioak.

Hori dela eta, osoko bilkurak aho batez berretsi ditu aurkeztutako alegazioak.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

4.- PLAZAKO OBRA BURUTZEKO LURRA UZTEKO AKTA SINATZEKO ALKATEA BAIMENTZEA

Osoko bilkurak aho batez baimendu du alkatea plazako obra burutzeko lurren uzte akta sinatzeko.

5.- BAKE EPAITEGIKO IDAZKARI ALDAKETA

Osoko bilkurak, behin Bake epailearen txostena irakurri ondoren, aho batez erabaki du Lierni Muñoa Salaverria proposatzea, Bake Epaitegiko idazkari lanak burutzeko.

Erabaki honen berri Justizia sailari emango zaio, dagokion izendapena burutu dezan.

6.- 1/2010 KREDITU GEHIGARRIAREN ONARPENA.

Idazkari Kontu-hartzaileak 1/2010 kreditu gehigarri espedientearen inguruan azalpenak eskaini ditu ondorengo edukiarekin:

Kontuan harturik ez dagoela jaso 2010eko aurrekontuan, Itelazpi enpresak eginiko lanei dagokien 21.751,04 euroko gastua.

Ikusirik lan horiek 2009an zehar burutu zirela urte horretako aurrekontuan ere ez zegoela gastu hori jaso.

Kontuan harturik 2009 urteko likidaziak, ohiko gastuetarako 32.368,18 euroko aborokina ematen duela eta hune honetaraino ez dela erabilia izan.

Kontuan harturik 2010eko kontabilizazioa nahiko atzeratua dagoela eta zenbait zalantza sor daitezkeela egungo aurrekontuan jasotzen diren kontu sailekin nahikoa izango ote den urteko gastuei aurre egiteko.

Ikusirik 21/2003 Foru arauak bere 23 artikuluan baimentzen duela aurrekontuaren hasierako % 5 baino txikiagoa den kreditu global bat abian jartzea, zehaztugabeko gastuei aurre egiteko.

Horren ondoren, osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 21/2003 Foru arauak bere 34 artikuluan jasotzen duen kreditu gehigarria abian jartzea, 2010eko tesoreriako aborokinaz finantziatuko dela, 32.268,18 euro izanik denera.

PARTIDA	CONCEPTO	FINANCIACIÓN TESORERÍA 2010	REMANENTE
1.0000.600.000.00.00	INVERSIÓN TELECOMUNICACIONES	21.751,05	
1.0000.226.190.00.01	KREDITU GLOBALA	10.517,13	
TOTAL INCREMENTO		32.268,18	

Bigarrena.- 2010eko altxordegi aborokina agortutzat ematea.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Hirugarrena.- Kreditu globalari dagokion kopurua erabiltzerako garaian, dagozkion kreditu transferentziak abian jartzea, alkatea izango delarik eskudun.

Laugarrena.- GAOr a bidali iragarkia, 15 eguneko epean dagozkion alegazioak aurkeztu ahal ditzaten interesatuek. Alegaziorik izan ezean behin betiko onarpen izaera izango du akordio honek.

7.- PLAZAKO OBRAREN LUR MUGIMENDUEN BIRKOKAPENA.

Osoko bilkurak aho batez onartu ditu plazako obraren ondorioz sortuko diren lurren birkokapenerako egingo den lehiaketaren oinarriak. Eskaintzak aurkezteko epea abenduaren 15a bitartekoa izango da, eta kontuan hartuko diren irizpideak hauek izango dira:

Lekuaren gertutasuna.- 20 puntu

Bideragarritasun tekniko/ekonomikoa.- 15 puntu

Interes publikoa.- 10 puntu

8.- OHIKO GASTUEN % 10A GAINDITZEN DUTEN FAKTUREN ONARPENA.

Osoko bilkurak aho batez onartu du Tensari dagokion eta Xabier Rezabali (BIRG) plazako proiektua egiteagatik, dagokion bi faktura onartzea, zehazki 44.138,46 eta 29.089,00 eurotakoa.

9.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak azaroko dekretuen berri eman dio osoko bilkurari, zehazki 2010eko 78 eta 85 bitartekoak.

Osoko bilkura, 18:30etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Beizaman, 2010eko abenduaren 17an

Lierni Muñoa Salaverria
Idazkari Kontu-hartzailea